

Balore proposamena

Antzeman dogun arazoa salerosketetan ematen dan gehiegizko paper kontsumoa da. Erosketak egitean, ematen deuskuen ticketetan erabilten dan paper kantidadea oso handia da. 2,5 zuhaitz behar dira urtero kontsumitzaile bakoitzaren erosketa-tiketak inprimiduteko. Honek, Nazio Batuen 2020 agendako 12. helburagaz bat dator, ekoizpen eta kontsumo arduratsuak. Egungo ekoizpen eta kontsumo eredu aldatzeari eusten deustxo, baliabide naturalen kudeaketa eraginkorra lortzeko, elikagaien galera, produktu kimikoen erabilera ekologikoa eta hondakinen sorrera murrizteko prozesuak abian jarri. Ticketak edozein motatako dendatan erabilten dira: supermerkatutan, parkingetan, jatetxetan etab. Enpresek kantidade handia gastetan dabe honetan, paper termikoan, tintan, inprimagailuetan...

Gainera, beste arazo bat ikusi dogu: kontsumitzaileentzat paperezko ticketen kudeaketa ez da erraza, izan be, ticketak gordetzea, sailkatzea, erosketen itzulerak egitea eta gastuak kontrolpean izatea oso korapilatsua da.

Arrazoi honeengaitik, garatu dogu gure idea. Proposatzen doguna ticket guztiak digitalki eukitea aplikazino berberan da, ondo antolatuta eta talde desbordinatan banatuta. Horrela, kontsumitzaileek egindako erosketa guztien ticketak bilduta izateko, modu antolatuan eta erosoan. Honek, edozein ticketa azkar eta erraz aurkitzeko aukera emongo dau.

Aplikazinoa kontsumitzaileen mobikorretan baita dendatako pantailatan be egongo da instalauta. Sortuko dogun aplikazinoa, dendaka sailkatutako karpetan banatuta egongo dana, zelan izango dan erakusteko bideo bat egin dogu. [\(APLIKAZIOAREN BIDEOA\)](#) Dendatako pantailatan, erosketa bat egiterakoan, ticketa zelan eukiteko aukeren artean, gure aplikazinoa egongo da. Aukera hori hautatzean, bakarrik identifikatu beharko da hatz markagaz edo gako bategaz eta euren mobikorreko aplikazinoan bidaliko da informazino guztia (ticket digitala) zuzenean, egokitzen jakon karpetara. Itzulera bat egitekotan, euren mobikorreko aplikazinoan aurkitu beharko leukie itzuliko daben produktuaren ticketa, gero, eskaneatu dandan gugaitik jada instalatuta egongo dan kodigoak irakurtzeko aparatuagaz.

Aplikazinoan premium aukera be egongo da, hainbat abantailekaz: karpetak nahiago dan faktorearen arabera antolatu (data, sektorea, dirua...), iragarkirik ez, egunero eta astero gastuen datuen notifikazioak eta deskontuen zozketa gehiagotan parte hartzeko aukera. Honek eukitzeagaitik diru kantidade txiki bat ordaindu behar izango da hilerero.

Lehiakide desbarinak eukiko doguz:

- 1) Ecoticket Tecnología Ecológica deitutako aplikazinoa ticket digitalak biltzen dauna.
- 2) Gastuak kontrolatzen dabezan aplikazinoak (CashTralls, Sabbatic...)
- 3) Bankuak daukien metodoa ikusteko zenbat gastatu dabe kontsumitzaileek eta non.
- 4) Dendak emailera edo mobikorrera ticketa bidali.

Eurengaitik desbardinuko gaituena batez be ticketen antolaketa izango da, ticket guztiak ondo gordeta eta antolatuta eukiteko erraztasun handi bat eskeintzen dogulako. Horrez gain, hileroko notifikazioak agertuko dira gastuakaz (gastu totala, denda eta egun bakoitzean gastatutakoa, zein produktu). Gainera, itzulerak egiteko metodoa oso eroso izango da eta desbardinuko gaitu dagoan guztiagaz, ez dalako existiduten horrelako ezer.